



## FARMAKOAK ETA BRUGADA-REN SINDROMEA

Brugada-ren sindromea **gaixotasun hereditarioa** da, eta bereizgarri hauek izaten ditu: anormaltasun elektrokardiografikoa (EKG) eta arritmia gaiztoak izateko arriskua areagotzen ditu.

Zenbait inguruabarrek arritmiak eragin ditzakete sindrome hori duten pertsonengan, eta, beraz, saihestu egin behar dituzte. Horrela, sukarra tratatu egin behar da eta kokaina edo alkohol gehiegi kontsumitzea saihestu behar da.

Ikusi da, halaber, sendagai jakin batzuek larriagotu egin ditzaketela alterazio elektrikoak Brugada-ren sindromea duten pertsonengan, eta, beraz, saihestu egin behar dela haietan erabiltzea. Honako medikazio hauek ez hartzea gomendatzen da:

### ERABAT SAIHESTU BEHARREKO FARMAKOAK:

- **Arritmiaren aurkako sendagaiak\***: ajmalina, allapinina, ethazizina, flekainida, pilsikainida, prokainamida, propafenona.
- **Psikotropikoak**: amitriptilina, klomipramina, desipramina, litioa, loxapina, nortriptilina, oxkarbazepina, trifluoperazina.
- **Anestesikoak / analgesikoak\***: bupibakaina, prokaina, propofola.
- **Beste substantzia batzuk**: azetilkolina, alkohola (dosi ez onargarriak), kannabisa, kokaina, ergonobina.

\* Gomendio berrienak lortzeko, bisitatu, mesedez, webgune hau: <http://www.brugadadrugs.org/emergencies>

### AHAL DEN GUZTIETAN SAIHESTU BEHARREKO FARMAKOAK:

- **Arritmiaren aurkako sendagaiak**: amiodarona, zibenzolina, disopiramida, lidokaina\*, propranolola, berapamiloa, bernakalanta.
- **Psikotropikoak**: bupropiona, karbamazepina, ziamemazina, klotiapina, dosulepina, doxepina, fluoxetina, fluboxamina, imipramina, lamotrigina, maprotilina, paroxetina, perfenazina, fenitoina, tioridazina.
- **Anestesikoak / analgesikoak**: ketamina, tramadola.
- **Beste substantzia batzuk**: demenidrinatoa, difenidramina, edrofonioa, indapamida, metoklopramida, terfenadina / fexofenadina.



\* Anestesia lokalerako (adibidez, dentistek erabiltzen dutena) lidokaina erabiltzea segurua dela dirudi, baldin eta dosi txikiak erabiltzen badira eta adrenalinarekin (epinefrina) konbinatzen bada, efektu lokala baino ez baita lortzen.

Sukarra izanez gero, jarraipen elektrokardiografikoa egitea gomendatzen da, gorputzaren tenperatura jaistearekin batera (adibidez, parasetamola erabiliz).

Mesedez, gogoratu preskripzio askok hainbat farmakoren konbinazioa dutela. Gainera, zerrenda horretan medikamentu jakin bat egoteak *edo ez egoteak* ez du esan nahi droga hori modu kaltegarrian *edo seguruan* erabiliko denik paziente-mota horretan.

Brugada-ren sindromea duten pertsonak saihestu behar dituzten drogei buruzko gomendio gehiago lortzeko, mesedez, bisitatu webgune hau: <http://www.brugadadrugs.org>